TXARTEL-JOKOA

NESKAK eta MUTILAK

NORBERA, DEN BEZALAKOA

www.neskaketamutilak.eus

ANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LA
LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOS
OSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA U
UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA A
AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA
DA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR
AR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CA
CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA G
GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABI
IL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK
K ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANI
DA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKI
KELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LL
LUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZ
IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI N
I NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MANEL JARA MIKELE CANDELA JOSUÉ TJOKRO IZEI NABIL CANDELA AWA MAREN
N NUR AMANDA ZUHAR ELVIRA LAIA ÁNGEL LLUVIA GAEL GRETA UNAX IZADI NUGA ERIK ALAI ZALOA UNAI MA

1

Munduan neska eta mutil asko daude.
Milioika...
Eta ez daude bi berdin.
Norbera bere erara da neska edo mutila.

Neska askok ile luzea daramate, eta batzuek motza.
Era berean, badaude ile motza duten mutilak eta ile luzea dutenak.
Badira dantza egiten duten mutilak eta jira eta bira, salto eta brinko dabiltzan neskak.
Badira galtzak daramatzaten neskak eta mutilak; eta soinekoak maite dituzten mutilak eta neskak.
Printzesaz edo maitagarriz mozorrotzen dira neska asko. Mutil batzuk ere bai.
Eta badira neskak pirataz edo superheroiz mozorrotzen direnak, mutil asko bezala.

Ederra da norbera den bezalakoa izan ahal izatea!
Neska bakoitza neska da bere erara.
Mutil bakoitza mutil da bere erara.

2

Mutil gehienek zakila daukate, eta neska gehienek bulba daukate.
Halaber, badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak.

Neska batek ez baldin badaramatza belarritakoak edo ile motza baldin badu, jendeak batzuetan uste du mutila dela. Edo mutil batek ile luzea baldin badu edo panpinekin jolasten baldin bada, neska dela.

Orduan, zer da mutil edo neska egiten zaituena?
Neska edo mutila zara... hala zarela sentitzen duzulako!
Zuk dakizun zerbait da, besterik gabe.
Eta zuk bakarrik jakin dezakezu.
Neska zara, mutila zara... hala zarelako.

Neska eta mutil bakoitza gainontzekoekiko desberdina da.
Bakarra munduan.

Eta zu, nolakoa zara?

ERABILERA-GIDA

Neskak eta Mutilak Txartel-Jokoa modu erraz eta dibertigarrian sexu-aniztasunari buruz elkarrizketak bultzatzen dituen material manipulagarri bat da.

Neskak eta Mutilak (Aingeru Mayor eta Susana Monteagudo, Litera argitaletxea, 2016) liburuan oinarrituta sortu diren koloretako hainbat txartelekin osatua dago. Txartelen aurrealdean neska edo mutil baten argazkia agertzen da, eta atzealdean haurraren izena, bere hainbat ezaugarri eta bere kontakizuneko zenbait esaldirekin batera. Antolamendu honek (batetik irudia eta bestetik testua) jolas eta erabilera anitzerako aukera ematen du.

Taldean zein bakarka erabil daiteke.

Nola ikastetxeetan eta haur-txokoetan, hala ingurune terapeutikoetan erabiltzeko gomendatua.

PROPOSATUTAKO JOLASAK

- Txartelak multzokatu ezaugarri jakin batzuen arabera.
- Norberaren ezaugarriekin bat datozen haurren txartelak bilatu.
- Txartelean agertzen den haurraren irudia begiratu, eta berari buruzko hainbat galderaren erantzunak asmatzen saiatu.
- Txarteletan agertzen diren haurren bizitzari buruzko kontakizunak asmatu.
- Txarteletako neskak eta mutilak protagonistak dituzten istorioak edo ipuinak asmatu.
- Norberak bere txartela egin.
- Txartelekin jolasteko modu berriak asmatu.

HEZITZAILEENTZAT OINARRIZKO IDEIA LAGUNGARRIAK

Neskak eta Mutilak Txartel-Jokoak eskaintzen dituen aukerak modu egokian baliatu ahal izateko, hona hemen hezitzaile edo bidelagunentzat ezinbestekoak iruditzen zaizkigun ideien laburpena (Efigenio Amezúak Incisex Sexologia Institutuan garatutako Giza Sexu Izatearen marko teorikoan oinarrituta):

1. Sexuak: neskak eta mutilak

—Neska eta mutil izateari erreferentzia egiten dio sexuak. Sexuazio prozesua deritzon hau izaki sexuatu egiten gaituen prozesu biografiko baten moduan ulertu behar da.

—Neskak eta mutilak sexuatzen doaz, sorkundearen unetik eta bizitza osoan zehar, emakume eta gizon berdingabe eta konkretu bilakatuz.

—Askotan hitz-elkarteetan «sexu» terminoa erabiltzen da, «genital» adierazi nahi denean. Are, badago «genital»ei «sexu» deitzen dienik. Ezinbestekoa da nozioak eta kontzeptuak nahasteari uztea: gauza bat da genitalak, eta bestea sexua. Kontu bat da daukaguna, eta beste bat garena.

2. Moduak: femeninoa eta maskulinoa

—Femenino gisa izendatzen ditugu nesketan mutiletan baino maizago agertzen diren ezaugarriak.

—Eta maskulino gisa mutiletan nesketan baino maizago agertzen direnak.

3. Intersexualitatea

—Subjektu sexuatu guztiak maskulinoan eta femeninoan sexuatzen gara.

—Denok ditugu, neurri desberdinetan bada ere, ezaugarri maskulino eta femeninoak.

—Proportzio desberdinetan ematen den ezaugarrien nahasketa hori bakana da gutako bakoitzean, eta horixe da elkarren desberdin, eta era berean antzeko, egiten gaituena.

4. Sexu-identitatea

—Norbere burua neskatzat edo mutiltzat jotzea hizkuntzaren ahalmena izan orduko adierazten den zerbait da, bi urteren bueltan. Auto-pertzepzio honen gainean, eta gainontzekoen begiradekin eta bizi garen jendartearekin dauzkagun hartu-emanak tarteko, norbere sexu-identitatea eraikitzen da, hau da, naizen neska edo mutila izateko modu berezi eta bakana. Sexu-identitatea kontzientzia-ekintza bat da. Norbera neska edo mutila da, hala dela badakielako.

—Sexu-identitatea ez dago genitaletan. Neska gehienek bulba daukate eta mutil gehienek zakila daukate. Halaber, badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak. Zakilaren zein bulbaren antzik ez duten genitalak ere badira, edo bien tankera dutenak aldi berean. Baita genitalik ez dutenak ere.

—Ez neska ez mutil sentitzen ez denik ere egon daiteke, eta beraz ez da izango ez neska, ez mutila.

—Norberak adierazten duena entzutea eta errespetatzea da garrantzitsuena, esandakoa zalantzan jarri gabe, eta kanpotik esan gabe ez zer den, ez zer izan behar duen, ezta nolakoa izan behar duen ere.

---

5. Sexu rolak (edo genero inposaketak)

—Jendarte bakoitzak neskek nolakoak izan behar duten eta mutilek nolakoak izan behar duten zehaztuta dauka hainbat aurreiritziren arabera. Eta aurreiritzi horiek inposaketa bihurtzen dira: «mutilak halakoak dira eta halakoak izan behar dute, eta neskak halako eta halako». Eta araua hausten duena hainbat modutan zigortua izaten da. Inposaketa hauek sufrimendua dakarte, eta zailtasunak norberaren garapenean.

—Mutilak ez dira modu batekoak, ezta neskak beste modu batekoak ere, eta ez dute zertan horrela izan.

6. Desira erotikoaren orientazioa

—Anitzak, desberdinak, bereziak izatea da erakargarri bihurtzen gaituena.

—Badira nagusiki gizonezkoez erakarriak sentitu eta maitemintzen direnak. Badira nagusiki emakumeez erakarriak sentitu eta maitemintzen direnak. Honi deitzen diogu desira erotikoaren orientazioa.

7. Amatoria

—Amatoria deitzen zaio elkar maite edota elkar desiratzen duten subjektu sexuatuen arteko bilaketetan eta elkartzeetan ematen diren jokabideei. Eta bilaketa eta elkartze horietan gertatzen denari eta gertatzeko moduari. Harreman bakoitzak berezko duen maitatzeko artea da amatoria, bere eszenaratzearekin, bere sedukzio, limurtze eta gorteiatzeekin, bere jolas eta plazerekin...

Ilean urkilak eta loreak jartzea atsegin dut, hainbat orrazkera probatzea eta perfumeak erabiltzea.

AWA

Oso ondo sentitzen da mutil artean; batzuetan, neska artean baino hobeto. Bere bilduma osatzeko, futbolarien kromoak trukatzen ditu hainbat mutilekin.

Zuhaitzetan gora igotzea maite dut. Eta erremintak erabiltzea eta gauzak konpontzea ikaragarri gustatzen zait.

AMANDA

Oinez ibiltzen baino lehenago, katuka igotzen ikasi zuen, gora eta behera egiten, eta orain ez dago geldiaraziko duen inor. Kolore berdea eta urdina gustatzen zaizkio. Ezagutzen ez dutenek mutila dela pentsatzen dute askotan.

Nire lagunak baino txikiagoa eta argalagoa naizenez jauzi handiagoak egin ditzaket, eta edozein zulotan sar naiteke.

UNAX

Herriko taldean jolasten du futbolean. Oso trebea da zelaian, eta joko garbia maite du, liskarrik gabea. Kolore berdea eta urdina gustatzen zaizkio.

Beti
argitu behar izaten diot,
ezagutzen ez nauen orori,
ez naizela neska,
mutila baizik.

GAEL

Oso mutil ezaguna da bere auzoan. Edonor agurtu eta edozeinekin hitz egiten du. Beti izan du gogoko elastikoak, felpak, bailarinak, gonak eta soinekoak janztea.

Arrosa kolorea eta zuri naturala gustatzen zaizkit.

IZADI

Kulero arrosak soilik jantzi nahi ditu. Bere amak uste du egun batean marrubizko jogurta probatu zuelako dela (ordura arte naturalak soilik jan izan baitzituen).

Skatean aritzen naiz, surfean, padel supean, skyan, bizikletan, futbolean... Eta hip hopa dantzatzen dut. Mugimenduan egotea da gehien atsegin dudana

ZUHAR

Mutila izateaz pozten da. Bulba duen mutila da. Lagunekin jolasten pasatzen du ondoen. Kotxeak eta motorrak atsegin ditu, eta borrokako kromoen bilduma egitea ere bai.

Balleta egitea izugarri gustatzen zait.

MAREN

Gorputz adierazpena lantzen du balletean, beldurrak gainditzen ditu surfaren bidez, eta skatea baliatzen du bere buruari desafio eginez hobetzen jarraitzeko.

Bizitza osoa igaro dut mutila naizela entzuten.

JARA

Lehen ile motza zeraman beti, eta belarritakorik ez. Orain ile luzea dauka, eta zulotxo bat egin du. Min handia egin dio eta zornatu egin zaio; horregatik, bestea ez egitea erabaki du.

Azukrezko kotoiaren zaporea dauka larunbatak, eta piruleta gorriarena igandeak. Bihotz formako piruleta gorria, jakina!

ALAI

Oso neska alaia da.
Itzulipurdi bat eginez jaio zen, eta geroz eta jauzi handiagoak egiten ditu orain.
Jaio zenean ingurukoek mutila zela uste zuten, baina ez, neska da.
Noski, ezin izan zuten jakin, bera hitz egiten hasi eta hala zela esan zien arte.

Ni neska bat naiz,
neska naizela badakidalako.

LAIA

Txikitan, inoiz ez zioten arrosa koloreko arroparik janzten. Maitagarrien mozorro arrosa izan zen eskatu zuen lehen oparia, hego arrosekin, koroa arrosarekin eta makilatxo magiko arrosarekin.

Mutila izan nahiko nuke, mutila izatea nolakoa den jakiteko.

LLUVIA

Betidanik daki neska dela.
Garai batean uste zuen uneren batean aldatu eta mutil izan zitekeela.
Handia izan eta gero, atzera berriz ninia izan zitekeela ere uste zuen.

**Ez daude
mutilen gauzak,
ezta nesken gauzak ere.**

CANDELA

Oso gustuko du igeri egitea, patinatzea, bizikletan ibiltzea, zuhaitzetan gora igotzea eta elur gainean irristaka jardutea. Baina, batez ere, zirkua atsegin du. Handitan trapezista izan nahi du. «Mutilen gauzak» egiten dituela entzuteak gogaitu egiten du Candela.

Diadema janztea ez dela mutilen gauza, hori esaten didate batzuetan, eta kentzeko. Ez diet jaramonik egiten, eta nire gauzetan jolasten jarraitzen dut.

ERIK

Txikia zela bere panpina haur-kotxean eramaten zuenez, jendeak batzutan neska zela pentsatzen zuen.

Handitan errugbi jokalaria izan nahiko nuke.

JOSUE

Oso gustuko du bizikletan ibiltzea, parkera joatea eta bere lagunekin egotea. Borroka-jokoak gustatzen zaizkio gehien.

Ez zait gustatzen niri ozen hitz egin diezadaten, eta ezta ezagutzen ez ditudan pertsonei musuak derrigor eman beharra ere.

CANDELA

Pirataz mozorrotuko da gaur, eta printzesaz bihar; eta antzerkia adina atsegin du saskibaloia. Beti oso argi izan du zer nahi duen eta zer ez.

Apaindegi bat jarri nuen behin nere etxeko gela batean.

NUGA

Bere etxean kontatzen dute txikia zenean bere bulba haur-aulkiaren aurka igurztea oso gustuko zuela; eta pixkana-pixkana isilik geratu eta lasaitu egiten zela; batzuetan, loak ere hartzen omen zuen!

Biluzik bizi nahiko nuke beti. Zergatik doa jendea jantzita denbora guztian?

ANGEL

Oso gustuko du hizketan jardun eta elkarrizketak izatea. Baita laztan dezaten eta berak laztantzea ere. Hondartza, igerilekua, izozkiak eta pastelak maite ditu. Eta makarroiek zoratu egiten dute.

Bizitza nire bi etxeetan partekatzea gustatzen zait: nire amarenean eta nire aitarenean.

ELVIRA

Oso gogoko du bainatzea itsasoan,
ibaian, igerilekuan eta bainuontzian.
Eta zuhaitzetan gora igotzea.
Lehen arrosa kolorea gustatzen zitzaion,
baina orain nahiago du urdina,
urdin turkesa batez ere.

Kokoteraino nago nagusiek denbora guztian neska-laguna dudan galdetzearekin.

MANEL

Jendearekin hitz egin eta lagun berriak egitea maite du. Mundu guztiarekin ondo moldatzen da. Istorioak asmatzen igarotzen du egun osoa. Abentura horietan berak eztarri-zulotik sua botatzen duten herensugeen kontra borrokatzen du.

Beti gustatu izan zait nire hatza miazkatzea, lasaitu egiten nau.

ZALOA

Batzuetan zirikatu egiten dute hatza miazkatzen duelako, nahiz eta jada ez zaion horrenbeste axola. Ezagutu eta maite dutenek dagoeneko ez dizkiote txantxak egiten.

Quechua

**Nire ilea zaintzen dut,
ez dudalako inoiz moztu nahi.**

IZEI

Bainuontzian denbora asko ematen du igandeetan, ilean korapiloak askatzen. Ez zaio haragia gustatzen, animaliak zaintzea gogoko duelako.

Besazpian iletxoak atera zaizkit, eta gogoko dut oso!

NUR

Bere silueta kurbaduna nabarmentzen duten arropak janztea gustatzen zaio.
Grina handia du dantzarako.
Eta sirena baten moduan egiten du igeri.
Ikaragarri gustatzen zaio futbola.

Moda gustatzen zait,
eta arropa polita janztea.

NABIL

Iseka egin zioten, eskolara bere marra urdindun zapatila arrosak eraman zituenean. Berak zera esan zien: «Ez bazaizue arrosa gustatzen, ez erabili, baina ez niri isekarik egin, gero!». Andereñoa oso pozik jarri zen, ausarta izan zelako, eta harrezkero ez zioten ezer gehiago esan.

Abenturak maite ditut.

UNAI

Bi urte zituenean, zauri handi bat egin zuen kopetan; hiru urterekin, kaktus batetik erori eta lepauztaia hautsi zuen; lau urterekin, oina erre zuen barbakoa batean; seirekin, zulo bat egin zuen masailean; eta zazpirekin, ukondoa hautsi zuen.

«Karate Kid» da nire pelikula gogokoena.

GRETA

Bere ahotsa lodiagoa da
lagun dituen mutilena baino.
Inoiz ez dio beldurrik izan eskalatzeari, eta
gurpil txikirik gabe ibiltzen
da dagoeneko bizikletan.
Arrosa kolorea atsegin du gehien.

Txikitan ez nuen ulertzen zergatik ezin nuen gonarik jantzi nire lagunen gisan.

MIKELE

Berari ez zitzaion bere izena gustatzen, jarri ziotenean mutila zela uste baitzuten. Orain, aldatu duenetik, askoz zoriontsuagoa da.

TJOKRO

Jaioberria da. Zakila duenez, mutila izango da ziurrenik.
Eta halaxe ikusten dute bere gurasoek.
Baina hitz egiten hasten denean soilik jakin ahal izango dute ziurtasun osoz.

ITSATSI HEMEN ZURE ARGAZKIA